

SOROGAINGO BAZKALEKUEN APROBETXAMENDUAREN ARAUAK 2025

1. Sorogaingo bazkalekuen 2025eko aprobetxamenduaren arauak

- a) Erroibarko abeltzain interesdunek aziendak Udal idazkaritzan apuntatuko dituzte 2025eko apirilaren 1a baino lehen, eta horretarako prestatutako eskabidea aurkeztuko dute. Abeltzain bakoitzeko ALU kopurua gehienez ere 70 ALU izanen da.
- b) Erroibarko abeltzain interesdunek, abereak larreetan sartu baino lehen, legez eska daitezkeen osasun-ziurtagiriak Udal idazkaritzan aurkeztu beharko dituzte.
- c) Azienda-markak honako ordutegi eta tokietan izanen dira:
 - Udaberriko marka: 2025eko maiatzaren 10ean, 9:00etatik 14:00etara, Sorogaingo eskortan.
 - Urepeleko marka: 2025eko maiatzaren 24an, 10:00etatik aitzina Urepelen.
- d) Aziendaren antolaketa:
 - A) Erroibarko azienda maiatzaren 10ean markatuko da.
 - B) Azienda maiatzaren 10etik aitzina sartuko da Sorogainen. Egoera klimatologikoak hala eskatzen badu edo larreen bolumenaren kalitateak gomendagarria egiten badu, Erroibarko Udalak azienda sartzeko datak aldatzea erabaki ahal izango du.
 - C) Data hori baino lehen debekaturik dago azienda Sorogaingo bazkalekuetan sartzea.
 - D) Udaberriko marka egunean Sorogaingo larreetan sartzera datorren ibarreko azienda egun hori baino bi egun lehenago egon ahal izango da Sorogainen, eta bakarrik Arbilletan, baina nahitaez markaren egunean jaitsi beharko da eskortara.
 - E) Markaren egunean ez da aziendarik markatuko karroetan.
 - F) Azienda Sorogainera eramaten duten bakoitzean, abeltzainek aguazilari jakinarazi beharko diote, bazkalekuak kontrolatu ahal izateko.
- e) Sorogaingo bazkalekuen 2025eko kanonak hauek izanen dira:
 - A) Ibarreko azienda:
 1. TARIFAK

a. Behi-azienda	33,00 €.
b. Zaldi-azienda	43,00 €.
c. Ardi-azienda	4,30 €
d. Belar erdia (uztailak 15)	2,15€
e. Ahuntz-azienda	4,30 €.
 2. Markaren egunean markatzen ez diren azienda guztiak, ezinbesteko kasuetan izan ezik, ostiraletan eta astelehenetan bakarrik markatuko dira, 8:00etatik 14:00etara, Sorogaingo mahukan (etxeko mahuka), eta %10 gehiago kobratuko zaie. Modu berean, azienda aldaketak egiten dituztenei %10 gehiago kobratuko zaie.
 3. Ordaintzeko baldintzak: Sorogainen sartuko den azindaren prezioaren %50 urteko apirilaren 30a baino lehen kobratuko da banku-igorpenaren bidez. Gainerako %50 urteko uztailaren 31 baino lehen kobratuko da banku-igorpenaren bidez.

SOROGAINGO BAZKALEKUEN APROBETXAMENDUAREN ARAUAK 2025

4. Kopuru horiek ordaintzen ez dituenari Udalak ez dio NPBrako hektarearik ziurtatuko. Modu berean, hurrengo urtean ezin izango du azendarik sartu Sorogainen.
5. Belar erdira (uztailak 15) sartuko den azindari dagokion kopuru osoa ekainaren 30a baino lehen kobratuko da banku-igorpenaren bidez.
6. Irailaren 1etik aurrera sartzen den ardi azindari 1,3€ kobratuko zaio buru bakoitzeko, eta kanona abuztuaren 31 baino lehen ordaindu beharko da.
7. Erroibarren bizi diren 30 urte edo gutxiagoko abeltzainek eta abeltzain ustiategi baten titular gisa 4 urte edo gutxiago daramaten abeltzainek %10eko murrizketa izanen dute Udal honek ezarritako kanonaren gainean. Era berean, abeltzaintzan nagusiki ari den abeltzain emakume orok % 10eko murrizketa izanen du Udal honek ezarritako kanonean.

B) Frantses azia:

1. TARIFAK
 - a. Behi-azia 71,00 €.
2. Baigorriko Ibarreko sindikatuak Sorogainen sartuko den azindariaren zerrenda eta kanona aurtengo maiatzaren 15a baino lehen ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.
3. Urepeleko Marka egunean Sorogainen sartzen den frantziar azindariaren %75 gutxienez oinez joango da markaren egunean, eta gainerako azia Sorogainera kamioietan joango da, Baigorriko Sindikatuaren baimenarekin.
4. Markaren egunean markatzen ez den azia oro ostiral edo astelehenean markatuko da, 8:00etatik 14:00etara Aztakarriko mahukan, ezarritako kanonaren gaineko % 20ko errekaruarekin. Kasu horietan ezin izanen da inolako justifikaziorik alegatu.
5. Azia Sorogainera eramaten duten bakoitzean, abeltzainek aguazilari jakinarazi beharko diote, bazkalekuak kontrolatu ahal izateko.

C) Kanpoko azia:

1. TARIFAK
 - a. Behi-azia 71,00 €

2. Frantziako ardiak sartzeko debekua mantentzea 2025. urtean.

3. Frantziako eta kanpoko zaldi-azia sartzeko debekua mantentzea.

4. Udal ordenantzaren arabera indarrean dauden debekuen informazioa ematea:

- a) Debekaturik dago Burguete arrazakoak ez diren hazitarako zaldiak sartzea.
- b) Debekaturik dago zezenkoak eta zezenak sartzea.